


Euskal AEko I+Gko gastua % 5,6 handitu da eta 2.114 milioi eurora iritsi da

I+Gan lan egiten duten langileen % 66,5ek ingeniartzaren eta teknologiaren esparruan ikertzen dute

2024an, Euskal Autonomia Erkidegoan, barneko I+Gko gastua (ikerketa eta garapen teknologikoa) guztira 2.114,2 milioi eurokoa izan zen. Zenbateko hori aurreko urtekoa baino 111,7 milioi euro handiagoa da, eta azken hamarkadan I+Gko gastuak izan duen hazkunde-joera iraunkorra sendotzen du; izatez, gastu-seriean inoizko maximorik handiena lortu da 2024an.

Barne Produktu Gordinari erreparatuta, Euskal AEko I+Gko barne-gastua % 2,15ekoa izan zen 2024an, aurreko urtean, 2023an, erregistratutakoaren parekoa. Datu horiek 27ko Europar Batasunerako (EB-27) eta Espainiarako eskuragarri dauden azken datuekin alderatze aldera, 2023ari dagokion barne-gastua erabili behar da: EB-27an Barne Produktu Gordinaren % 2,22 izan zen eta Espainian % 1,49. Euskal Autonomia Erkidegoan % 2,15ekoa izan zen.


Barneko I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko Ehunekoa



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Lurraldez lurralde, I+Gko gastua Gipuzkoako Barne Produktu Gordinaren % 2,74koa izan zen, Bizkaikoa % 1,94koa, eta Arabakoa % 1,59koa. 2024an, Euskal Autonomia Erkidegoko barneko I+Gko gastu osoaren % 45,9 Bizkaian egin zen (969,4 milioi euro), % 42,4 Gipuzkoan (895,6 milioi euro) eta % 11,8 Araban (249,2 milioi euro).

Barneko I+Gko gastua Euskal AEn. Egikaritze-Sekoreak.



Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Euskal AEn egindako barneko I+Gko gastuaren % 76,5 enpresen sektoreak exekutatu du

Barneko I+Gko gastua exekutatzen duen sektoreari dagokionez, gehiena, % 76,5 (1.617,2 milioi euro), irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek eta enpresek egin dute; % 16,7 (353,2 milioi euro), goi-mailako irakaskuntzak, eta gainerako % 6,8a (143,7 milioi), administrazioaren mendeko zenbait organismok exekutatu zuten. Aurreko urtearen aldean, administrazio publikoak % 11,9 handitu zuen I+Gko gastua, % 7,6 goi-mailako irakaskuntzak eta % 4,6 irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek eta enpresek.

Lurraldeen arabera, aldeak daude gastua exekutatzen duten sektoreei erreparatuta. Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen eta enpresen sektorean, Gipuzkoa da gastu gehien exekutatzen duena, 720,6 milioi euro; gero Bizkaia da 708,4 milioi euroekin eta, azkenik, Araba 188,2 milioi euroekin. Aitzitik, administrazio publikoaren eta goi-mailako irakaskuntzaren

sektoreetan, Bizkaia da gastuaren buru, 78,4 eta 186,2 milioi euroekin; Gipuzkoan, aldiz, 46 eta 129 milioi euro dira, hurrenez hurren. Araban, azkenik, administrazio publikoak 19,4 milioi euroko gastua egin zuen I+Gan, eta goi-mailako irakaskuntzak 41,6 milioi eurokoa.

Azken hamarkadari erreparatuta, I+Gko barne-gastu osoa % 66 igo da 2015aren aldean, orduan 1.273,2 milioi eurokoa baitzen. Enpresa-sektorea nabarmentzen da, % 70,1 hazi baita (2015eko 951 milioitik abiatuta). Administrazioak ere % 64,3 handitu du inbertsioa, eta goi-mailako irakaskuntzak, berriz, % 50,5 gehiago hamar urte horietan.

Gastuak sektoreen arabera izandako banaketa ez da nabarmen aldatu. 2015ean, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen eta enpresen sektorean metatzen da guztizkoaren % 74,7, eta 2024an haien posizioa % 76,5eraino indartu dute. Administrazioa ia ez da aldatzen: % 6,9tik % 6,8ra. Aitzitik, goi-mailako irakaskuntzak pisu pixka bat galdu du, % 18,4tik % 16,7ra jaitsi baita.

I+Gko barne-gastuak, egikaritze-sektoreen eta fondoek jatorriaren arabera (mila euro). 2024

	Guztira	Administrazioa	Goi-mailako irakaskuntza	Enpresak	IAGEP	Atzerria
Guztira	2.114.155	740.521	36.732	1.160.702	14.487	161.712
Enpresak eta IAGEP	1.617.228	360.992	171	1.122.851	3.245	129.969
Herri-administrazioa	143.748	127.704	237	9.331	2.047	4.429
Goi-mailako irakaskuntza	353.178	251.825	36.323	28.520	9.195	27.315

I.P.S.F.L.=Instituciones IAGEP = irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak

Data 2025eko Azaroaren 14a

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Barneko I+Gko gastuaren finantzaketari dagokionez, enpresek 1.160,7 milioi euro jarri zituzten I+Grako, 2023an baino % 4,5 gehiago eta 2015ean baino % 63,7 gehiago. 2024an enpresen sektoreak finantzaketa osoaren % 54,9 egin zuen, aurreko urtean baino ehuneko 0,6 puntu gutxiago. Dena dela, lehen finantzaketa-iturri izaten jarraitzen du.

Finantzaketa publikoak, bestalde, 740,5 milioi euroko ekarpena egin du, aurreko urtearekin alderatuta % 8,5 gora egin ondoren eta 2015 urtearekin alderatuta % 74,4 gora egin ondoren; 2024ko barneko I+Gko gastu osoaren % 35,0 da.

Gainerako funtsen jatorria honako hau da: goi-mailako irakaskuntzaren sektorea 36,7 milioi, irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak 14,5 milioi eta atzerria 161,7 milioi. Hiru horien artean gastuaren gainerakoaren % 10,1 dira.

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, administrazio autonomoaren ekarpena nagusitzen da (545,6 milioi). Ekarpene hori % 7,2 hazi da aurreko urtearen aldean eta administrazio publikoak 2024an finantzatutako zenbateko osoaren % 73,7 da —exekutututako I+Garen guztizkoaren % 25,8—.

Bestalde, administrazio zentralak (148,8 milioi) % 9,8 handitu du finantzaketa aurtan, eta % 20,1eko parte-hartzea du administrazio publikoek finantzatutako kopuru osoan. Azkenik, foru-aldundiek eta toki-administrazioek (46,1 milioi) % 6,2ko partaidetza izan dute, eta ekarpena ere % 26,2 igo da aurreko urtearen aldean.

Dedikazio osoko **I+Gko** 24.409 **langile** izan ziren, % 4,8 hazi ondoren. Exekuzio-sektoreen arabera: 17.271 pertsona irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen eta enpresen sektorean, % 5,0 hobetuta eta guztizkoaren % 70,8 ordezkatuta; 5.469 pertsona goi-mailako irakaskuntzan (+% 2,3 eta guztizkoaren % 22,4); eta 1.669 administrazio publikoan (+% 11,1 eta guztizkoaren % 6,8). Lanbide-kategoriari dagokionez, ikertzaileak 17.296 dira (% 70), % 6,1 gora egin ondoren; 5.452 langile teknikoak dira (% 22,3), eta % 3,1 egin dute gora; eta, azkenik, 1.662 laguntzaileak dira (% 6,8), duela urtebete baino % 2,7 gutxiago.

Ikerketa egiten den **diziplina zientifikoaren** arabera, I+Gan dedikazio osoaren baliokidetzan lanean ari diren langileen % 66,5 ingeniartze eta teknologian aritzen dira. Gainerako diziplinek presentzia txikiagoa dute: Medikuntza zientziak (farmazia barne) % 12,1, Zientzia zehatzak eta naturalak % 9,7, eta Gizarte zientziak eta humanitateak % 8,7. Nekazaritza-zientzien kasuan (abeltzaintza, basogintza eta arrantza barne), dedikazio osoaren baliokidetzan lanean ari diren langileen proportzioa % 3koa da, soilik.

I+Gko langileen % 37,2 emakumeak ziren

2024an, dedikazio osoko I+Gko langileen % 37,2 emakumeak dira. 9.073 emakume dira, 2023an I+Gan jarduten zuten emakumeen kopurua % 4,4 igo ondoren, eta aurreko urteko pisuari eusten dio (% 37,3).

I+Garen exekuzio-sektorea kontuan hartuta ikusten da emakumeen presentzia adierazgarriagoa dela enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzaren sektorean, kantitateari dagokionez: 5.388 eta 2.706 emakume, hurrenez hurren, eta 979 emakume administrazio publikoaren sektorean. Hala ere, termino erlatiboetan, administrazio publikoan emakumeak langileen % 58,7 dira; goi-mailako irakaskuntzan % 49,5 dira, eta enpresen sektorean % 31,2 dira.

I+Gko gastuaren eta langileen (DOB) bilakaera Euskal AEn. 2011-2024

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
I+Gko gastuak														
Guztira (milioi eurotan)	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2	1.423,4	1.481,4	1.490,0	1.646,9	1.794,7	2.002,5	2.114,2
Urteko gehikuntza (%)	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6	10,5	9,0	11,6	5,6
Langileak (DOB)														
Guztira	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274	19.619	19.511	20.804	21.746	23.300	24.409
Urteko gehikuntza	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5	6,6	4,5	7,1	4,8
Ikertzaileak (DOB)														
Guztira	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165	13.520	13.629	14.367	15.230	14.612	17.296
Urteko gehikuntza	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8	5,4	6,0	7,1	6,1

(p)Behinbehineko datuak

DOB= Dedikazio Osoko Baliokidetzatza

Data 2025eko Azaroaren 14a

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Oharra: Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten elkarlanean jardun duten enpresa eta erakunde guztiei, eginiko ahaleginagatik; informazio-bilketa 2025eko apiriletik urrira bitartean egin da. Haien laguntzarik gabe, ez zatekeen posible izango.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62